

8. Ingelesen hilerrria

Hilerrri horretan daude Lehen Gerra Karlistan liberalen alde borrokatutako Britainiar Legio Laguntzailearen hilobiak. 1924an monumentua desmuntatu eta erasoaldia erakusten duen soldadu-taldea ipini zen Urgull mendiko paisaia malkartsuan, erromantizismoz eta misterioz betetako eszena bitxi batean. Gaur egun, guduaren irudiak ezkutatuta daude landare artean, eta soldaduen busto guztiak desagertuta daude.

Multzoaren gailurrean dagoen brontzezko arranoa, berriz, Mendeurrenaren Monumentuko Zubietako Batzarren erliebearen gainean zegoena da.



9. San Telmo Museoa


2013an, Ingelesen hilerrriko eskultura-multzoaren zatitzat jo zen San Telmo museoko funtsetan zegoen hareharrizko buru bat. XX. mendean zehar lau aldiz zaharberritu eta berregin da, interpretazio libreak eginez, originala aintzat hartu gabe. Buru hori 1952an zaharberritutako soldadu bati dagokio.



10. Irun plaza

Udalak Irun plazako biribilgunerako eskultura-proiektuak eskatu eta merkataritza-gune batek diruz lagunduta, eskultura-multzo berri batean berrereabili ziren Zubietako Batzarren erliebearen aztarnak.

Aitor Mendizabal eskultorearen Ateak izeneko konposizioa iturri zibernetiko batean dago integratuta.




**MENDEURRENAREN
ONDOREN**

**Batera eta bestera Donostian barrena,
monumentu handi baten aztarnen atzetik**

1813 - 1913 - 2013

4. Iparraldeko geltokia

Maria Kristina zubia igarota iristen gara Iparraldeko geltokira. Geltokiko pasabidean ipini zen Easo Ederrak zeraman urrezko koadriga —Donostiaren pizkundearen ikurra zena—, eta horrek zubiaren dotorezia areagotu zuen. Ez dakigu zertan bukatu zuen koadriga hark.



5. Euskadi Plaza

Santa Katalina zubira ematen duen plaza horretan jarri ziren erreginaren alboko bi lehoiak. Ahozko testigantzen arabera, baliteke lehoiak urtu eta haien brontzea Gerra Zibilean erabili izana armak egiteko.



7. Matxoaren zelaigunea

Urgull mendiaren hegaleko zelaigune horretan egon ziren, 1994ra arte, Zubietako Batzarren erliebearen aztarnak. San Bizente elizan egon ondoren hondatuta zegoenez, erliebea udal-biltegiara eraman eta, ondoren, berriro ipini zen Matxoaren zelaigunean. Urgull mendian egon zen bitartean, ez zen mantendu hasierako konposizioa. Hiritar sonatuen estatuak bururik gabe zeuden, eta erliebea erabat zatituta. Eskulturamultzo hark gehiago ematen zuen antzinako irudi bat edo paisaia arkeologiko bat.



6. San Bizente eliza

Estilo gotikoko eliza hori Donostiako Parte Zaharrean dago eta hiriko zaharrena da. Elizaren sarrerako fatxadaren oinarrian egon zen, lehenik, Zubietako Batzarren marmol zuriko erliebea.



Mendeurrenaren ondoren (1994-2013)

Jose Ramon Aisen proiektua da.

Bake-ituna Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren proiektua da.

1813. *Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea*, bere lehen aurkezpena, DSS2016 Fundazioak eta San Telmo

Museoak egin dute, ondorengo koprodukzioarekin: Donostiako Untzi

Museoa eta Bakearen eta Giza

Eskubideen Etxea, eta Ormaiztegi

Zumalakarregi Museoa; eta

ondorengo laguntzarekin:

Musée Basque et de l'histoire de

Bayonne, Madrilgo Kalkografia eta

Liburutegi Nazionala, Prado Museoa eta

Reina Sofia Arte Museo Zentroa.

Laguntzaileak:

Donostiako Udaleko udal-artxibategia,

Donostiako Liburutegi Nagusia

Irudiak:

Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia

(Gipuzkoako Foru Aldundia), San Telmo

Museoa, Kutxateka, Euskadiko Filmatagia.

1. Alderdi Ederreko lorategia

1913an, lehen Kasino Handia eta orain Udaletxea denaren ondoko lorategian eraiki zen Mendeurrenaren Monumentua. Gaur egun, ezertxok ere ez du adierazten monumentua bertan egon zenik 11 urtez.



2. Cervantes plaza


Alderdi Ederreko lorategitik, Kontxa pasealekuko tamarindo entzutetsuek Cervantes plazaraino eramaten gaituzte. Udalak plaza horretan erabaki zuen jartzea, lorategi batez inguratuta, urrezko koadrigaren azpiko kapitela.

Kapitel hartatik ezer ez da geratzen, baina beste monumentu baten zati bat dago bertan: 1905ean eraikitako oroigarritzko zutabe bat, Kixote argitaratu zeneko 300 urteak ospatzeko.

3. Ondarretako pasealekua

Kontxako pasealekuan aurrera joanda, Loretopea zeharkatuz heltzen gara Ondarretako hondartzara. Haren ertzeko pasealekuan ipini zen Maria Kristina erreginaren estatua, hasieran Konstituzio Plazarako pentsatu zen arren. Marmolezko idulkia besterik ez da geratzen monumentu originaletik.

1942an, oso hondatua zegoenez, estatua urtu eta brontze harekintxe egin zuen egungo irudia Jose Diaz Bueno eskultoreak.



19 San Sebastián. Parque de Alderdi-eder y Playa de la Concha



MENDEURRENAREN ONDOREN

Hiri bakoitzak bere memoria du, eta ezin erakargarriagoa da bere historian barneratzea. Horrexen adibidea argia da Donostia. Goazen denboran atzera begiratzera.

1813ko abuztuaren 31n, tropa anglo-portugaldarrek Donostia arpilatu eta su eman zioten, askatu egin nahi zutela-eta Napoleonen espantsio-politikak eragindako frantses okupaziotik. Bizirik geratu-

tako hiritarrek Zubietako Batzarretan elkartu eta Donostia berehala berreraikitzea erabaki zuten. Izan ere, hiria zegoen lekuan errautsa eta kea besterik ez zen geratu, eta biztanleak ere asko bakandu ziren.

XIX. mendea aurrera joan ahala Gipuzkoako hiriburu bihurturik, 1863an harresiak eraitsita Donostiak gotorleku izateari utzi, eta hirigunea ireki eta zabaltzea erabaki zen.

Erabat suntsitu zenetik ehun urtera, Donostia *Belle Époque* baten erdian zegoen: proiektio handia zuen kanpoan eta jende ospetsu asko biltzen zen bertan. Leku ederra zen, itsasoan bainatzeko moda zabaldu zen eta monarkiak bertan igarotzen zuen uda. Horren guztiaren ondorioz, Donostia turismoaren ardatza zen Europan, eta horrek bul-tzada eman zien aisiako azpiegitura, kasino, hotel eta antzoki bikainei. Egoera horrek hainbat urte iraun zuen, baita Lehen Mundu Gerra odoltsuaren urteetan ere, metropoli txikia gatazka-gunetik kanpora baitzegoen.



1913. urtea gertakari gogoangarri baten mendeurrena izanik, monumentu bat eraiki zen hiria altxatzen lagundu zuten donostiarren omenez, hurrengo belaunaldien oroimenean bizirik iraun zezan.

Mendeurrenaren Monumentuak gorabehera latz haiek gogorarazi behar zituen, Donostiaren handitasuna nabarmentzeaz gain, eta hiriarren irudi adierazgarria bilakatu zen. Izaera herrikoia emate aldera eta Udalaren diru-laguntza osatzeko, diru-bilketa publiko bat ere egin zen.

Monumentua egitea lehiaketa bidez esleitu zitzaion Gasteizko Modelaketa eta Tailaketa Eskolako taldeari, "Zubieta" izeneko proiektuarekin. Juan Pique eskultorearen eta Javier Luque eta Julian Apraiz arkitektoen taldeak proiektu instituzional asko egin zituzten, besteak beste Gasteizko Katedral Berria edo Espainiaren Pabilioia, Veneziako Bienalean.

Alderdi Ederreko lorategian eraikitzea erabaki zen. Mendeurrenaren Monumentuak 13,5 metroko altuera zuen eta, horri esker, hiriko hainbat lekutatik ikusi ahal zen.

Monumentuaren konposizio formalak Donostiaren pizkundera adierazten zuen. Oinarri triangeluarraren gaineko erliebeetan guduaren hondakinak eta Zubietako Batzarrak agertzen ziren, haietatik sortzen zen —Fenix Hegaztiaren antzera— hiri berria, zutabe handi batez sinbolizaturia, eta haren kapitela korintiarraren gainean urrezko koadriga bat zihoan, Easo Ederra buruan zuela. Erdiko zutabe hori besarkatuz, girlandaz inguratutako lau medailoitan zetozen irudietako gertakarien datak. Monumentuaren aurreko aldean, brontzezko bi lehoi handiren ondoan ipini zen Maria Kristina Austriakoa erreginaren estatua, Donostiarekiko zuen interesa eskertzeko.

Material hauekin eraiki zen: hareharria, Carrarako marmola, greasaren gaineko su-esmalteak, bai eta burdinak eta brontzeak ere, forjatuak nahiz galdatuak. Mendeurrenaren Monumentua forma klasikoaren berriakurketa bat izan zen —garai hartako oroigarritzko lanetan ohikoa—, baina oso desberdinak izango ziren XX. mende hasierako artearen abangoardia berriak.



Hura inauguratzeko orduan hainbat ekitaldi eta jaialdi antolatu ziren, eta bertan izan ziren, beste hainbat pertsona ospetsuren artean, errege-erreginak. Ospakizun hartarako egin zuen Jose Maria Usandizaga konpositore donostiar ezagunak Mendeurrenaren himnoa. Monumentuaren helburua “hiriaren harrotasun” bihurtzea zen, alaitasunaren eta aberastasunaren ikur dotore bat.

Nolanahi ere, monumentu batek historia eta iraunkortasuna elkar-tu nahi dituenean herri baten sentimendua eta memoria islatzeko, etorkizunerako gidari izan nahi duenean, berebizikoa izan, hiriguneko lekurik nabarmenean egon eta, gainera, jeinu baten artelana izan, handinahi hori itogarria gerta daiteke, edo nahi ez bezalako harrera jaso dezake.

Begi onak laster bukatu ziren. Harmonia-iturri izan behar zena arazo-iturri bihurtu zela erakusten du Udalbatzar batean esandakoak: “Aurrerapenaren maila guztietan jantzia eta modernoa den hiri batek, mundu osoan ospetsua eta turismoaren topagune denak, naturaren



hainbeste xarma dituenak, ezin ditu kritikak jaso sentsibilitate fineko jendearengandik, ongizate materialaren eta kultur aisiaren irrikaz etorriak”. Mendeurrenaren Monumentua kritika eta eztabaida ugariaren katalizatzailea izan zen, eta horren guztiaren atzean zeuden aferak publikoak, ekonomikoak, politikoa eta estetikoak.

Eraiki zenetik hamaika urtera, apaingarriak soiltzeko plan bat hasi zuten alkateak eta obra-batzordeak, eta Mendeurrenaren Monumentua desmuntatu egin zen, agidanean, leku desegokian zegoelako eta ingurunearekin bat ez zetorrelako. 1924 hartan, Alderdi Ederreko lorategiak itxura xumeagoa hartu zuen: monumentua desagertzearekin batera itxi zen Kasino Handia, Primo de Riveraren erregimen diktatorialak jokoa debekatuta.

Hiritar askok begiko zuten arren, monumentua zatitu eta “merezimendu artistikoa” zuten atalak hirian zehar sakabanatu ziren, parkeak eta pascalkuak apaintzeko.

